

Euskal Autonomia Erkidegoko esportazioak %16,1 igo ziren 2006. urtean

Energiatzkoak ez diren esportazioen %52 Frantziara, Alemaniara, Italiara eta Erresuma Batura joan ziren

Eustaten datuen arabera, 2006. urtean 16.513,8 milioi euroko **esportazioak** egin ziren Euskal Autonomia Erkidegoan, hau da, 2005. urtean baino %16,1 gehiago. Gehikuntza hori eragin zuten, hain zuzen, hiruhileko guztietan hazkunde handiak izan zirelako; salbuespen bakarra bigarren hiruhilekoa izan zen, honetan gehikuntza besteetan baino txikixeagoa izan baitzen (%6,4).

Bestalde, 17.156,5 milioi euroko **inportazioak** egin ziren, 2005. urteko 14.492,3 milioi euroen aldean %18,4 gehiago. Energiako inportazioak %33,9 gehitu ziren eta energiatzkoak ez direnenak %11,5.

Euskal Autonomia Erkidegoko kanpo-merkataritzaren bilakaera. 2005-2006. Milioi eurotan.

	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK		
	2005	2006	Δ %	2005	2006	Δ %
EUSKAL AE	14.225	16.514	16,1	14.492	17.156	18,4
ARABA	3.999	4.598	15,0	2.512	2.801	11,5
BIZKAIA	5.236	6.565	25,4	8.770	10.866	23,9
GIPUZKOA	4.990	5.351	7,2	3.210	3.489	8,7

Iturria: Eustat

Estatuarekin alderatuta, Euskal Autonomia Erkidegoko esportazioen gehikuntza Espainiako esportazioen tasa (%10,6) baino ia sei puntu altuagoa izan zen. Euskal Autonomia Erkidegorako inportazioei dagokienez ere aldea handia izan zen, Estatuko inportazioen aldean (%12,2) sei puntu baino pixka bat gehiago igo baitziren.

Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza-saldoa defizitarioa izan zen ondoz ondoko bigarren urtez: 642 milioi euroraino igo zen. 2006. urteko estaldura-tasa (esportazioak inportazioen aldean) %96koa izan zen, 2005ekoa baino puntu bi txikiagoa. Aitzitik, **merkataritzako saldo ez-energetikoa aurreko urtekoa baino hobea izan zen**: 2005. urtean 3.339 milioi euroko superabita izan zuen eta 2006. urtean 3.941 milioi eurokoa. Estaldura-tasa %2 gehitu zen, gainera: 2005ean %133koa zen eta 2006an %135ekoa.

Estatu osoko merkataritza-saldoak 89.688 milioi euroko defizita izan zuen eta esportazioek inportazioen aldean izan zuten estaldura-tasa %65,4koa besterik ez zen izan 2006. urtean. Merkataritzako saldo ez-energetikoa ere defizita izan zuen, 53.976 milioi eurokoa, eta ondasun ez-energetikoen estaldura-tasa %74,9koa izan zen.

Herrialdeak aintzat hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoak 2005ean baino merkataritza-saldo hobea izan zuen **Europar Batasunarekin**: 2005. urte amaieran saldo horrek 2.315 milioi

euroko superabita zuen eta urtebete igarota 2.741 milioikoa izan zen. Beraz, 2005eko %130,2ko estaldura-tasa 2006an %131,8koa izan zen.

Euskal Autonomia Erkidegoko kanpo-merkataritza esportazio kopuruaren arabera. 2006. urtea. Mila eurotan.

HERRIALDEAK	ESPORTAZIOAK	INPORTAZIOAK	MERKATARITZA-SALDOA
Guztira	16.513.844	17.156.536	-642.692
Frantzia	2.988.322	1.730.103	1.258.219
Alemania	2.487.944	2.141.307	346.637
Italia	1.383.252	1.109.593	273.660
Ameriketako Estatu Batuak	1.344.149	320.276	1.023.873
Erresuma Batua	1.159.744	1.053.313	106.432
Portugal	790.907	279.474	511.433
Belgika	631.117	488.108	143.009
Mexiko	407.476	216.582	190.894
Herbehereak	377.515	594.845	-217.330
Polonia	265.639	72.412	193.227

Iturria: Eustat

Euskal Autonomia Erkidegoko esportazio ez-energetikoen %52 lau herrialdetara joan zen (Frantzia, Alemania, Italia eta Erresuma Batua) eta lau herrialde horietatik etorri ziren inportazio ez-energetikoen %49. Frantzia da oraindik EAEko esportazio gehien hartu duen herrialdea eta Alemania inportazio ez-energetiko gehien hartu duena.

Euskal Autonomia Erkidegoko esportazio guztien %8,1 AEBetarako izan zen; horrela, 2006. urtean horien kopurua %52,6 gehitu zen.

Inportazio guztien %40 baino gehiago (gehienak produktu energetikoen inportazioak) Estatu Independenteen Komunitateko herrialdeetatik, Latinoamerikatik eta Iran, Txina, Nigeria, Irak eta beste herrialde batzuetatik etorri ziren. Herrialde horiekiko saldo defizitariora 4.568 milioi eurokoa izan zen 2006. urtean, %47,5 handiagoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko esportazioen bilakaerak, kopuru eta hazkunde-tasa aintzat hartuta, honako **muga-zergak** hartu zituen oinarri gisa: *metalak eta horien manufakturak* (%15,8), *garraio-materiala* (%10,3), *material elektrikoa* (%8,2), *produktu mineralak* (%62,8) eta *plastikoak eta kautxua* (%38,1).

Inportazioak gehitu egin ziren *metalak eta horien manufakturak* (%24,9), *produktu mineralak* (%33,9), *plastikoak eta kautxua* (%15,8) eta *material elektrikoa* (%9,6) gora egin zutelako; aitzitik *garraio-materialak* inportazio gutxiago izan zuen (%-7,3).

Lurraldeka, **Bizkaiko** esportazioak %25,4 gehitu ziren, **Arabakoak** %15 eta **Gipuzkoakoak** %7,2.


Bizkaiko esportazioek izan zuten bilakaeraren eragileak izan ziren *metalak eta horien manufakturak* (%19,6), *garraio-materiala* (%16,9), *produktu mineralak* (%64,2), *plastikoak eta kautxua* (%55,0) eta, neurri txikiagoan izan bada ere, *material elektrikoa* (%10,9).

Arabako esportazioen oinarri nagusiak hauek izan ziren: *garraio-materiala* (%18,6), *plastikoak eta kautxua* (%28,1) eta *metalak eta horien manufakturak* (%10,1).

Azkenik, Gipuzkoako esportazioen oinarriak izan ziren *metalak eta horien manufakturak* (%15,0), *material elektrikoa* (%10,1) eta *plastikoak eta kautxua* (%18,7). *Garraio-materialak*, aldiz, bilakaera negatiboa izan zuen (%-5,7).

Euskal Autonomia Erkidegoko kanpo-merkataritzaren bilakaera

EUROAK milioikotan



Iturria: Eustat

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Patxi Garrido

Tel:+34-945-01 75 13 Faxe:+34-945-01 75 01

Prensa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp